

2022-3-15

PRENTSA TXOSTENA

## **EUSKAL HEZKUNTZA LEGEA: EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN EZTABAIDA- PROZESUAREN AURKEZPENA**

### SARRERA

Ongi etorri HEIZE eta EHIGE elkarteon prentsaurre honetara. HEIZEtik hemen dituzue Iñigo Salaberria, presidentea, eta Ana Mendizabal, zuzendaritza batzordeko kidea. EHIGetik, bestalde, Susana Aribayos, zuzendaritza batzordeko kidea, eta Lurdes Imaz, koordinatzailea.

EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioa da, EAEko sare publikoko gurasoen erakunde bakarra, eta 450 IGE barne hartzen ditu.

HEIZE Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen Federazioa da eta 300 ikastetxe barne hartzen ditu.

Bi elkarteok urteak daramatzagu elkarlanean euskal hezkuntza sistemarako proposamenak egiten, horien artean “Euskal Herrirako Curriculum” (2009) eta “Euskal Eskola Publikoa haratago” (2010).

Ezagutzatik hitz egiten dugu: ikastetxe publikoetako eguneroko dinamiken esperientziatik, euskal hezkuntza sistemari buruzko ebaluazioen hausnarketatik, ikerketa zientifiko eta egin diren politiken jarraipen estuetatik.

Legegintzaldi honetan Euskal Hezkuntza Lege berri bat adosteko asmoa agertu dute Eusko Jaurlaritza eta partidu politikoek. Helburu horren oinarriak finkatzeko ponentzian parte hartu dugu bi eragileok eta lehen zirriborroaren balorazio kritikoa egin dugu, ez dituelako jaso Euskal Eskola Publikoaren aldarrikapen historikoak:

- Egungo eredu duala gainditu eta eskola publikoa ardatz izango duen euskal hezkuntza sistema eraikitzea.
- Gizarte-kohesioa bermatuko duen planifikazioa.
- Hizkuntzen ereduak gainditu eta murgiltze-eredu orokortua.
- Euskal Eskola Publikoaren kalitatea hobetzeko plan estrategikoa.

Zilegitasun osoa duen adostasun politikoak aldi bereko adostasun soziala beharrezkoa du, hartzen diren erabakien eraginkortasuna bermatzeko. Euskal Eskola Publikoan sinisten dugunon indarra proiektu bateratu baten mesedetan, bidelagun ezinbestekoa dela uste dugu.

**Euskal hezkuntza sistema ez da hobetuko Euskal Eskola Publikoa hobetzen ez bada.**

## EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN EZTABAIDA-PROZESUA

HEIZE eta EHIGE elkarteok diogu eztabaida politikotik haratago, hezkuntza- eta gizarte-adostasun zabal baten emaitza izan behar dela Euskal Hezkuntza Legea. Guk gure aldetik eztabaida prozesu bat abiatzeko konpromisoa hartzen dugu datozen hilabeteetan. Horretarako, eduki eta jarduera hauek aurreikusten ditugu:

### Oinarrien dokumentua

Dokumentu sakon hau izango da prozesuaren zutabea, eta eztabaida sustatzea du helburu, ekarpenak eta balorazioak jasoaz. Bi zati ditu: lehenengo zatian euskal hezkuntza sistemaren diagnostikoa egiten du zortzi ataletan:

- Euskal gizartea gaur.
- Hezkuntza-sistemaren errendimendua.
- Eskolaratzea.
- Euskalduntzea.
- Kuasi-merkatuko hezkuntza-sistema.
- Publikoaren esanahia. Hezkuntza-zerbitzu publikoa. Finantzazio pribatua.
- Hezkuntza Ituna.
- Euskal hezkuntza-sistemaren erreforma.

Bigarren atalean Euskal Eskola Publikoaren plan estrategikoa egiteko proposamena jasotzen du.

### Hitzaldi-eztabaidak

Martxoaren bukaeratik aurrera hitzaldiak egingo ditugu, herri mailan zein ikastetxeetan. Oinarrien dokumentua aurkezteaz gain, eztabaidarako aukera izango da.

### Euskal Eskola Publikoaren proposamena Euskal Hezkuntza Legerako

Prozesuari amaiera emateko, proposamen berri bat argitaratuko dugu, Euskal Hezkuntza Legean eragina izatea helburu izango duena. Dokumentu hau Euskal Eskola Publikoaren ahalduzko prozesutik eta ezagutzatik sortuko da eta hemen gauden bi eragileok dugun prestutasunetik ikusmira kritikoa eta eraikitzailea egiteko.

**EHIGE eta HEIZE elkarteok argi dugu euskal hezkuntza sistemak dituen erronkei erantzuteko bidea eskola publikoaren perimetroa zabaltzea dela, eskola publikoa delako gizarte-kohesio, aukera berdintasuna eta euskararen garapena bermatu dezakeen sare bakarra.**

*Orain arte egindako argitalpenak eta eztabaida-prozesuari buruzko informazioa:*

[www.euskaleskolapublikoa.eus](http://www.euskaleskolapublikoa.eus)



2022-3-15

DOSSIER DE PRENSA

## LEY VASCA DE EDUCACIÓN: PRESENTACIÓN DEL PROCESO DE DEBATE DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

### INTRODUCCIÓN

Egun on. Gracias por acudir a esta rueda de prensa organizada por HEIZE y EHIGE. Representan a HEIZE su presidente, Iñigo Salaberria, y Ana Mendizabal, de su junta directiva. En nombre de EHIGE Susana Aribayos, de su junta directiva y Lurdes Imaz, coordinadora.

EHIGE es la Confederación de familias de Euskal Herria, la única organización de madres y padres de los centros públicos de la CAV, y cuenta con 450 AMPAs federadas.

HEIZE es la Federación de Asociaciones de Direcciones de la Escuela Pública, y cuenta con 300 centros federados.

Las dos asociaciones llevamos años haciendo propuestas conjuntas para el sistema educativo vasco, entre ellos Euskal Herrirako Curriculumuma” (2009) y “Euskal Eskola Publikoa haratago” (2010).

Hablamos desde conocimiento. Desde nuestra experiencia diaria de las dinámicas de los centros educativos públicos, desde la reflexión sobre las evaluaciones de nuestro sistema, desde el seguimiento estrecho a las investigaciones científicas y las políticas educativas.

Tanto el Gobierno vasco como los partidos políticos han mostrado su disposición de elaborar una Ley Vasca de Educación en esta legislatura. HEIZE y EHIGE hemos participado en la ponencia para fijar las bases de dicha ley, y hemos realizado una valoración crítica del primer borrador, porque no recoge las reivindicaciones históricas de la Escuela Pública Vasca:

- Superar el modelo dual actual y construir un sistema educativo cuyo eje sea la escuela pública.
- Una planificación que garantice la cohesión social.
- Superar el sistema de modelos lingüísticos y establecer un sistema de inmersión generalizado.
- Un plan estratégico para mejorar la calidad de la Escuela Pública Vasca.

La legitimidad que tiene el acuerdo político debe ir acompañada con el acuerdo social, para poder así garantizar la efectividad de las decisiones. Para ello es imprescindible contar con la comunidad educativa de la Escuela Pública Vasca. **El sistema educativo vasco no va a mejorar si no mejora la Escuela Pública Vasca.**

## PROCESO DE DEBATE DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

Para HEIZE y EHIGE la Ley Vasca de Educación debe ser fruto de un amplio debate educativo y social. Por nuestra parte, nos comprometemos a poner en marcha un proceso de debate dentro de la Escuela Pública Vasca en los próximos meses, que contará con:

### Un documento de bases

Este documento será el pilar del proceso y su objetivo es fomentar el debate a través de la recogida de aportaciones y valoraciones. Tiene dos partes. La primera realiza un análisis del sistema educativo vasco en ocho apartados:

- La sociedad vasca hoy.
- El rendimiento del sistema educativo.
- Escolarización.
- Euskaldunización.
- Sistema educativo de cuasi-mercado.
- El significado de lo público. El servicio vasco de educación. La financiación privada.
- El Acuerdo Educativo.
- La reforma del sistema educativo vasco.

La segunda parte realiza una propuesta para elaborar el plan estratégico de la Escuela Pública Vasca.

### Charlas-debate

A partir de finales de marzo pondremos en marcha una ronda de charlas, tanto a nivel municipal como escolar. Además de presentar el documento de bases, habrá espacio para el debate.

### Propuesta de la Escuela Pública Vasca para la Ley Vasca de Educación

Este proceso culminará con la publicación de un nuevo documento, con el objetivo de incidir en la futura Ley Vasca de Educación. Este documento será fruto del proceso de empoderamiento de la Escuela Pública Vasca y de la visión crítica y constructiva de HEIZE y EHIGE.

Tenemos el convencimiento de que **la única manera de responder a los retos que tiene el sistema educativo vasco es a través de la ampliación del perímetro de la Escuela Pública Vasca, porque es la única red que puede garantizar la cohesión social, la igualdad de oportunidades y la garantía del desarrollo del euskera.**

*Todas las publicaciones y el proceso de debate:*

*[www.euskaleskolapublikoa.eus](http://www.euskaleskolapublikoa.eus)*